

## Lapurren kopeta

*Euskaldunon Egunkaria*, 1998-05-30: 3.

Gizakia ahula da berez tentatzen erraza, honexegatik du deabruak hainbesteko arrakasta. Edonork daki hau bere eskarmentu propiotik. Halere, eta zerbaitetarako balio behar zuen telebistak, ez zait gaur arte gizakiaren aurpegi gogorra hain nabari eta bizi agertu.

Nafarroan egin berri dituzten juizioen lehen egunean, Aragon izan zen kupida sorrarazi zidana epaileen eta milaka tele-ikusleen aurrean gizonki aitortu zuenean jaso zuela, bai, aipatu zen 70 mila milioi pezetako propina, baina ez besterik; aurpegi nahigabetu hark samurtu ninduen, egia esan, eta epailea neu izatea suertatu balitz libre utziko nuen bertan behera; baina lapurtzat genuenak jarraian aurpegi berarekin erantsi zuen diru hau ezin zuela itzuli, zergatik?, ba dena inbertituta zeukalako! Bigarren akusatua euskal jatorrikoa zen. Nafarroako presidente ohia hain zuzen, eta errukia bikoiztu zitzaidan; berehala jarri nintzen guardian, halere, gizona errugabea zela argudiatu zuenean; errugabea? bai, egiazko lapurra bere ondoan eserita zeukan emaztea zelako, eta senarrak hau ozenki leporatu eta ezer entzun ez balu legez geratu zen bere andrea, ikusi nuen; orduan konturatu nintzen biek (*ambos dos*) konplize peto-petoak zirela.

Hirugarrena (kasualitatez denak butakako lerro berean eserita film bera ikusten baleude bezala), hirugarren gizonak esan zuenean: guztiz faltsua zela han aieruz esaten ari ziren eskupekoaren bitartekaria bera izan zela, "berak hauetako bati Suitzan kontua ireki besterik ez ziola egin, eta, ea bada, noiztik hona den delitua adiskide denari mesedeak egitea!". Falta zena, handi eta borobilena, Roldan, lasai eta isilik zegoen, ezin zuen hainbeste gezurren artean egia karratu bat esatea asmatu, gizagaixoak.